

MUSIKA

BEASAIN

- **Vocale Karlsruhe** abesbatza. Andra Maria Zeruratuaaren parrokian, 20:30etan.

BURLATA

- **Cuervo Jack**. Black Rose tabernan, 20:30etan.

GASTEIZ

- **Panteras Negras**. El Parral tabernan.

GETXO

- **Ukraniako Oreya** abesbatza. Algortako Villamonte auzoko San Martin de Tours elizan, 20:00etan.

ANTZERKIA

DEBA

- **Mari sorgin**. Taupada antzerki taldearen eskutik, Zubeltzu zinemán, 15:00etan.

ZINEMA-BIDEOA

ARRIGORRIAGA

- **Barre egin**. Txirri, Mirri eta Txiribitonen filma, 15:30etan.
- **Tomate berde erreak**. Helduentzako filma, 17:30etan.

DONOSTIA

- **Victor ala Victoria**. Groseko Okendo kultur etxean, 19:30etan. Groseko auzo elkar-teak antolatuta.

HITZALDIA

ARRIGORRIAGA

- **Zergaitik gazteok ez dugu euskaraz hitz egiten**. Mahai-ingurua kultur etxean, 19:30etan.

BILBO

- **El tango, sus poetas y letristas**. Boulevard kafean, arratsaldeko 19:30etan. Tangoaren as- tea.
- **Euskal dantzak. Ikusmira orokorra**. Iñaki Irigoien es- kutik Ingenieritza eskolan, 13:00etan.

DONOSTIA

- **Nuestras sociedades y la inmigración magrebí**. Cesar Manzanos eta Javier de Lucasen eskutik, Koldo Mitxelénan, 19:00etan.

BERTSOLARITZA

IRUÑEA

- **Jexux Mari Irazu eta Sebastian Lizaso**. Erraldoien txoko- an, 20:00etan. Bertso saio bere- zia.

ZINEMA-BIDEOA



EGUNKARIA

Jarmuschen 'Year of the horse', Bilboko Karmengo aretoan

Jim Jarmusch zuzendariaren *Year of the house* dokumentala estreinakoz eskainiko dute gaur Bilbon. Neil Youngen eta Crazy Horse musika taldearen bira bati buruz Jarmuschek 1996an egin zuen ikus-entzunezkoa da. Formato ezberdinetan filmatutako ikus-entzu- nezko lan hau Karmengo aretoan emango dute, arratsaldeko 19:45etan, jatorrizko bertsioan.

LEHIAKETAK

ARRASATE

- **Literatur lehiaketak**. Ipuina, poesia eta bertso paperak. Lanak otsailaren 11a baino lehen bidali behar dira honako helbi- dera: AED Elkartea / XIII. Arra- sate Lehiaketak / Pablo Uranga kalea, 4 behe / 20.500 / Arra- sate.

ARRIGORRIAGA

- **Arrigorriagako Udalaren XII. Argazki lehiaketa**. Lanak txu- ri-beltzez edo kolorez izan dai- tezke, 40x50 zmtako neurriare- kin. Azaroaren 25a baino lehen kultur etxean edo Abusu areto- an aurkeztu behar dira argaz- kiak. Argibide gehiago 94- 6712361 telefonon.

BILBO

- **XII. Bilbo Hiria pop-rock lehiaketa**. Taldeek abendu- aren 31a baino lehen, grabaturi- ko hiru kantaz maketa zein dis- ko batez gain, taldearen biogra- fia txikia, harremanetan jartzeko telefonoa, helbidea aur- keztuko diren musika mota eta taldearen historialea honako helbidera bidali beharko dute: Bilboko Udaletxea, Gazteria Saila, Ernesto Erkoreka plaza z/g, 48007 Bilbo. Argibide gehiagorako 94-4151306 telefo- nora deitu.

DEBA

- **XVII. Tene Mujika Narrazio La-**

burren Literatur saria. Lana- ren hiru ale Debako Udaletxera bidaliko dira azaroaren 26a bai- no lehen. Gaiak libreak izango dira. Argibide gehiago Udaletxe- an.

DONOSTIA

- **Zu bezalako haurrak. Unicef idazlan lehiaketa**. EAEn bizi diren eta 8-11 urte bitarteko haur guztiek dute parte hartze- ko eskubidea. Idazlanak 40 eta 60 lerro artekoak izango dira, eta abenduan zehar aurkeztuko dira UNICEFeko egoitzan (Peña eta Goñi, 5-6 D). Informazio gehiago 943-271161 eta 945- 145548 telefonoetan.

GALDAMES

- **Ogi Eguna Kartel Lehiaketa**. Kartela 50x70 zentimetrotakoa izango da eta testua soilik hona- koa: 'Ogi Eguna 1999'. Lanak Galdameseko kultur aretoan aurkeztu behar dira, azaroaren 12a baino lehen.

HONDARRIBIA

- **XVI. Literatur lehiaketa**. Bor- dari (ipuinak) eta Satarka (oler- kiak) sariak. Lanak aurkezteko epea azaroaren 13an amaituko da. Bi maila izango dira: 18 ur- tez gorakoentzat eta 18 urtez be- herakoentzat. Gaia librea izango da. Hondarribiako Udalak anto- latu du lehiaketa.

IRUN

- **Zine eta Bideo Gaztea IV. Lehiaketa**. 1964-1981 bitarte-

an jaiotako zinegileek parte har dezakete. Obra bakoitzaren iraupena gehienez 20 minutu- koa izango da, eta fikiziozkoa izan beharko da. Lanak azaroa- ren 10a baino lehen bidali behar dira Irungo Udalera. Argibide gehiagorako 943-649309 telefo- nora deitu.

LEIOA

- **XIII. Argazki lehiaketa**. Gaia li- brea izango da. Argazkiak 30 x 40 zmk euskarri zurrunaren gainean aurkeztuko dira. Lanak aurkezteko epea azaroaren 12an amaituko da. Argibide gehiago 94-4804660 telefono- an.
- **XIV. Bertso paper lehiaketa**. Bertsoak errima eta gai libreko- ak izango dira. Bertsoak postaz bidali daitezke azaroaren 12a baino lehen honako helbidera: Leioako Kultur Aretoa, Koordi- nazio kulturala, Sabino Arana kalea, 67-behea, 48940 Leioa, Bizkaia. Argibide gehiago 94- 4804660 telefonon.

LEZO

- **Lezoko Literatur Sariak 1999**. IV. Juan Joxe Sarasola Lexo olerki saria, IV. Daniel Garbizu *Iruzubi* ipuin saria eta III. Fran- tzisko Gaintza saiakera saria. Olerkiek gutxienez 50 lerro izango dituzte eta gehienez 300, ipuinek gutxienez 3 orrialde izango dituzte eta gehienez 18, eta saiakerek gutxienez 5 orrial- de izango dituzte eta gehienez 30. Idazlanak azaroaren 6a bai-

no lehen aurkeztu behar dira Udal Liburutegian.

MUTRIKU

- **XV. Bertso Paper Lehiaketa**. AEK-k antolatutako lehiaketa. Hiru maila: 14 urteraino, 15-18 urte bitartekoentzat, eta 19 ur- tetik gorakoentzat. Bertso pape- rak abenduaren 9a baino lehen aurkeztu behar dira Mutrikuko AEK-n (Frontoi kalea z/g).

OÑATI

- **2.000. urteko egutegia egite- ko lehiaketa**. Mural erakoa izango da eta honako ezauga- rriekin: 70x50 zm., koloretan, brillodun paperan. Lanak aza- roaren 5a baino lehen aurkeztu behar dira Euskara Zerbitzuan.

SESTAO

- **III. Marrazketa Fantastikoa- ren Lehiaketa**. Marrazkiak Gaztelekura bidali behar dira azaroaren 15a baino lehen. Hel- bidea: Gazteleku, La Iberia ka- lea z/g, 48910 Sestao.

BESTELAKOAK

BARAKALDO

- **Irakurzaleen txokoaren bilera irekia**. Bizarra Lepoan euskara elkartearen egoitzan, 19:00etan.

GASTEIZ

- **Joxe Mari Carrere ipuin kon- talaria**. Iparralde liburutegian, 18:30etan.